

Baleren Bakaikoa

EHUKO irakaslea

Keynesen ekarpenak 50 urte beranduago

Keynesiar paradigma indarrean egon zen bitartean, kapitalismoak estatu garatuetan bere urrezko aroa ezagutu zuen, eta demostratu zuen, hein batean, zientzia ekonomikoa, oro har, gizartearen zerbitzuan erabil zitekeela

■ John Maynard Keynes (1883-1946) duela berrogeita hamar urte zendu zen, eta bere teoriak denbora luzean indarrean egon ostean, badirudi pentsamendu bakarreko mundu honek betirako erretiratu nahi duela, agintarientzat pentsamendu ofiziala ez dena hobe baita ez dela existitzen suposatzea.

Keynesek bere garaiko teoria ekonomiko klasikoa zalantzan jarri zuen eta beste hipotesi batzuetan oinarrituta zegoen teoria lantzen jarraitu zuen. Izan ere, Keynes ez zen hutsetik hasi. Bera baino lehen William Pettyk zenbait proposamen egin zituen langabetuak lanean ipintzeko. Geroago, Thomas Malthusek ere zer bait erantsi zuen, ez baitzuen ikusten sistema ekonomikoan ekoizten zuen guztia eskariarekin oreka zitekeelarik; eta azkenik, John Hobson dago, mende honen hasieran, Keynesengan eragin handia izan zuena.

Keynesek ez du onartzen ordura arte zalantzan jarri ez zen Sayren Legea. Lege honen arabera, sistema ekonomiko batean eskaintza da aitzindaria eta eskaria hari egokitzen zaio. Hau da, eskaintzak eskaria eragiten du berehala berdindu arte. Eta jakina, Keynesen garaian teoria hau zen nagusi unibertsitate gehienetan.

1936an argitaratu zuen bere lan bikaina: *The General Theory of Employment, Interest and Money* (Enplegu, Interes eta Monetaren Teoria Orokorra, euskaraz berehala argitaratuko da). Laburbilduta, Sayren Legea ez dela betetzen esaten du, eta eskaintza osoaren eta eskari osoaren arteko desoreka gobernua bete behar duela.

Ekonomiari honen lan ospetsu hau ekonomia krisialdi gogorrek jota zegoenean azaldu zen. Izan ere, estatu kapitalisterako gobernuek ez zekiten zer egin egoera larri hari aurre egiteko, gizarte egonkortasunaren oinarriak balantzaka baitzuden inoiz ez bezala. Gainera, hurbil eta oraindik osasuntsu, Sovietarrak Errusian eta inguruko

herrialdeetan eraikitzen ari ziren sistema ekonomiko itzaropentsu berri hura zegoen, eta honek ere beldurtzen zituen agintari politikoak eta ekonomikoak.

Egoera horretan, estatuaren eskuhartzea hasten da ekonomian, eta Bigarren Munduko Gerratea amaitu ondoren eskuhartze hori areagotu egingo da. Zeregin honetan, Britainia Handian garrantzi handikoa da Beveridgen Txostena, non planteatzen den estatua- ren eskuhartze sakona gizarte- ko arlo gehienetan, batik bat Gizarte-Segurantzaren bidez zenbait zerbitzu publiko unibertsalizatuz. Ordutik aurrera, estatua ekonomia eta gizarte-ko arlo guztietara

helduko da. Ongizarte-ko Estatuaren garapena etorriko da.

Azken batean, Ongizate-ko Estatu- a langileen lorpena da, hain zuzen bere borrokaren bidez, batik bat nazien aurkako gerran, eskuratu zutena. Eta inork ez zuen zalantzan ipini. Ez kontsebadorek Britainia Handian, ezta eskuindarek ere Europako beste herrialde kapitalista aurreratuetan. Zalantzak eta kritikak, 1970etik aurrera hasten dira, mendealdeko ekonomia krisialdi sakonean sartzen hasten denean. Orduan, estatuaren eskuhartze honekin sartzen hasten dira eta estatuaren betekizun hau bertan behera utzi nahi da. Keynesen teoriak ordu txikitzen sartzen hasten dira. Gaur arte.

Keynesiar paradigma indarrean egon zen bitartean, kapitalismoak estatu garatuetan bere urrezko aroa ezagutu zuen, eta demostratu zuen, hein batean, zientzia ekonomikoa, oro har, gizartearen zerbitzuan erabil zitekeela, gaur egunean indarrean dagoen paradigma neoklasikoak egiten ez duen bezala. Izan ere, azken hauen teoriak ez dira gai gaur egun ekonomia dagoen zulotik ateratzeko, eta beraz, luze baino lehen, Keynesi heldu beharko zaio, oraindik esateko eta egiteko asko baitauka. ■

Unai Iturriaga



Ez egirik izkutatu

Ostegunean euskal preso- en senitarteko batzuk ETBren lurretako egoitzatik kanporatu zituen Ertzaintzak. ETBn beren senideei buruzko berriei ematen zaien tratamenduz (ematen zaie) kexu ziren. Ez naiz harriztzen! Aldaia eta Ortega kartzeleroaren argazkiak eguneroko izan ditugu eta oraindik dugu albistegietan. Ados. Ez dut ukatuko jende multzo haundi bati ardura dion berria denik. Baina jakizue beste jende multzo haundi bati, eta ez erradikalei bakarrik, ajola diela Espainia eta Frantziako kartzelatan barreiatu- rik dauden preso- en egoerak. Joera politikoez aparte askok eta askok badaukatelako senideren bat, bere ideiekin bat etorri ez arren, ziega ilun batean usteltzen ari dena, komisalde- gien torturazten dutena, kartzelaz astero aldatzen dutena, urte bete- an laurogei liburu irakurri ez ditza- keena, eta oker- rrena gaixotasun sendaez- in batez bere egunak atzeko aurrera kontatzen ari dena.

Guzti hori ez da ETBko albistegietan agertzen, eta horrek min ematen digu uste baino gehiagori, ezen notizia bati egin dakiokkeen gauzarik txarrena ez baita gaizki hitz- zegitea, ez ematea baino. Barkatuko didate Jon eta Aitor Sarasuak beraien bertso batekin bukatzen badut. ETBko periodis- ta leialei idatziriko bertsoa: «Hoi- en aldean sinpatiko zait / berdezko txakurlaritz- a / gurra eman ohi dute baina ez dute pozointzen hitza».

Txillardegia



Atzeak eskua latz

Horixe dio euskal atsotitz zaharrak (Oihenarte, 46). Baita, ildo beretik, beste hau ere: «atzerri, otserrri» (Oih, 49).

Eta honetxek ematen digu egoeraren neurri zehatza. Eustakio Mendizabalek, Josu Landak, eta beste anitzek, esana dutenaren bidetik, horrelaxe bizi gara euskaldunok.

Erdaldunak nola bizi diren, beraien gaitza. Ez, zalantzarik gabe, euskaraz bizi garenek bezain zapaldu- rik. Zapaldu- rik, bai. Joan Mari Irigoien idazleak gogorazi digu berriki hitz zehatzez: «euskaldunon desgrazia ez da nolana- hiko: kanpotik datorrena, etxean balego bezala sentitzen da; eta etxekoa, kanpokoa balitz bezala».

Nik alderantzizko irakurketa hau erantsiko nuke: hau Atzerri bihurtu zaigu. Arestik berak, Bilbori buruz mintzo zen hartan, argi utzi zuen bezala. Hemen arrotz, atze eta kanpotar sentitzen ez denak, bere burua salatzen du. Gogorra da hau, latza. Zenbait alorre- tan aldatzen hasia.

Baina hemen eta gaur, Joan Marirekin erabat ados izanik eta aitorturik, kanpotarra eta euskaldun alienatua, nagusi, jaun eta jabe; eta bertakoa eta abertzalea, arrotz, zafuruturik eta minbera. Katalunian gaur ez-katalana senditzen da arrotz. Euzkadin, aldez, euskalduna dago oraindik arrotz eta deserriturik.

Erdaldunek, abertzale ala autonomista, hau guztiz eta osoki sinetsiko ez duteno, hemen abertzaleok jai dugu.

L A P h I T Z A

